

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

Tolosako Udaletxean, 2014ko abenduaren 30ean, arratsaldeko 19:30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 30 de diciembre de 2014, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria
Asier De los Rios Soraluze
Igor Ezenarro Balda
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Mikel Arreseigor Astibia
Jon Koldobika Arsuaga Artola
Ainhoa Etxeberria Aranburu

Jon Aldazabal Etxeberria
Miren Ezkiaga Etxezarreta
Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Nuria Carbonell Miranda
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Jose Ignacio Asensio Bazterra
Olatz Peon Ormazabal

Ez Bertaratua:

Rosa Maria Urkola Irigoyen

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko Kontuhartzaitza:

Paulino Alonso Eraso.

1.- Ondorengo akta onartzea:

2014ko azaroaren 25eko Osoko Bilkurakoa

1.- Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 25 de noviembre de 2014.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

- | | |
|--|--|
| 2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2014ko azaroaren 1etik 30era (1498/2014-1639/2014). | 2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía: Del 1 al 30 de noviembre de 2014 (1498/2014-1639/2014). |
| 3.- 2014/1676 dekretuaren berri ematea: lurreamendin Lehendakaria izendatzea. | 3.- Dar cuenta del decreto 2014/1676: nombramiento de Presidente de lurreamendi. |
| 4.-Tolosako Udalaren 2015ko Aurrekontu Orokorra onartzea: - Bere aurrekontua - lurreamendi Egoitza - Tolargi, S. L. - Erretengibel, S. A. - Tolosa Lantzen, S. A - Tolosa Lotzen, S.A. - Tolosa Gasa, S.A. - Bateratua | 4.-Aprobación del Presupuesto General del Ayuntamiento de Tolosa para el año 2015: - Presupuesto propio - Residencia Yurreamendi - Tolargi, S. L. - Erretengibel, S. A. - Tolosa Lantzen, S. A. - Tolosa Lotzen, S.A. - Tolosa Gasa, SA. - Consolidado |
| 5- Ordenantza fiskalen aldaketa: EIOZ. | 5.- Modificación de ordenanzas fiscales: ICIO. |
| 6.-2015ko ekitaldirako Tolosako udaleko eta lurreamendi Egoitzakoa plantila onartzea. | 6.-Aprobación de la plantilla orgánica del Ayuntamiento de Tolosa y de la Residencia lurreamendi para el año 2015. |
| 7.-Tolosako Udaleko eta lurreamendi Egoitzako 2015 urterako lanpostuen zerrenda onartzea. | 7.- Aprobación de la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Tolosa y de la Residencia lurreamendi para el 2015. |
| 8.- Jakinaren gainean geratzea zinegotzi baten kargu uztea. | 8.- Tomar conocimiento de la renuncia del cargo de una concejal. |
| 9.- Aprobación del acta de deslinde entre Ibarra, Leaburu-Txarama y Tolosa. | 9.-Ibarra, Leaburu-Txarama eta Tolosa udalerrien mugaketa akta onartzea. |
| 10.- Tolosako Udalerrian kaleko salmenta arautzen duen ordenantzaren aldaketa. | 10.-Modificación de la Ordenanza reguladora de la venta ambulante. |
| 11.- Galde-eskeak. | 11.- Ruegos y preguntas. |

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1.- Ondorengo akta onartzea:

2014ko azaroaren 25eko Osoko Bilkurakoa

1.- Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 25 de noviembre de 2014.

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2014ko azaroaren 1etik 30era (1498/2014-1639/2014).

2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 1 al 30 de noviembre de 2014 (1498/2014-1639/2014).

Alkatetzak, 2014ko azaroaren 1etik 30era bitartean (1498/2014-1639/2014) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2014/1676 dekretuaren berri ematea: lurreamendin Lehendakaria izendatzea.

3.-Dar cuento del decreto 2014/1676: nombramiento de Presidente de lurreamendi.

Dekretuak honela dio:

“Tolosako lurreamendi Egoitzako Estatutoen 7.1.artikuluaren arabera, Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaria da Tolosako Udaleko Alkatea edo hark izendatzen duen ordezkaria.

Hau kontuan izanik, 2011ko uztailearen 12an egindako plenoan, besteak beste, izendapen hau egin zen: Rosa Maria Urkola Irigoyen, zinegotzia dena, lurreamendiko Lehendakaria.

Aipatutako zinegotzia lanean baja -egoeran zegoelako, Alkateak 2014ko azaroaren 12an, 1548/2014 Dekretua eman zuen eta horren berri azaroaren 25eko plenoan eman. Bertan, Rosa María Urkola Irigoyen lurreamendiko Lehendakari kargutik kentzea erabaki zuen eta Lore Agirre Zipitria zinegotzia kargu horretarako izendatu. Izendapen horrek baja -egoera bukatu arteko iraupena zuen.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

Baina Rosa María Urkola zinegotzi kargua uztekoa da, eta kontuan izanik lurramendiko Egoitzako Estatutoen 7.1.artikulua, kargua bereganatzea komenigarria dela kontsideratu du Alkateak.

Hau dena kontutan izanik,

ERABAKI DU:

Lehena.- Azaroaren 12an emandako Dekretua, 1548 zenbakia duena, bertan behera uztea lurreamendi Egoitzako lehendakariaren izendapenari dagokionean.

Bigarrena.- Lurramendi Egoitzako Zuzendaritza Batzordeko lehendakaritza Alkateak hartzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen berri ematea lurramendi Egoitzari, kontuhartzaitzari eta Udalbatzari.”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4.-Tolosako Udalaren 2015eko Aurrekontu Orokorra onartzea:

- Bere aurrekontua
- lurreamendi Egoitza
- Tolargi, S. L.
- Erretengibel, S. A.
- Tolosa Lantzen, S. A
- Tolosa Lotzen, S.A.
- Tolosa Gasa, S.A.
- Bateratua

4.-Aprobación del Presupuesto General del Ayuntamiento de Tolosa para el año 2015:

- Presupuesto propio
- Residencia Yurreamendi
- Tolargi, S. L.
- Erretengibel, S. A.
- Tolosa Lantzen, S. A.
- Tolosa Lotzen, S.A.
- Tolosa Gasa, SA.
- Consolidado

Datorren urteko aurrekontu orokorraren proiektua aurkeztu da bere dokumentazio osoarekin. Udal aurrekontuarekin batera, aurrekontu osoa osatzen dute erakunde hauen aurrekontuak: lurreamendi Egoitza, Tolargi, S. L., Erretengibel, S. A., Tolosa Lantzen, S. A, Tolosa Lotzen, S.A., Tolosa Gasa, S.A., Bateratua

Era berean, proposatzen da udal arautegiko lotura juridikoak beste era batean arautzea. Proposamenak honela dio:

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

“6. artikulua.- Lotura juridikoak

6. artikulua.- Lotura juridikoak

1.- Gastuetarako kredituak bideratuko dira bakar-bakarrik Aurrekontu Orokorrean edo behar bezala onartutako beraren aldaketetan gastu horiek baimenduta daukaten helburu zehatzetara. Bai Aurrekontu Orokorra bai beraren aldaketak izango dira mugatzaile eta lotesleak. Beraz, ezingo da hartu aipatutako kreditu horien kopurua baino handiagoko gastu konpromisorik, eta zuzenbide osoz baliogabe izango dira aipatutako arau hori hausten duten hitzarmen, erabaki eta administrazio ekintzak, alde batera utzirik eska litezkeen erantzukizunak. Mugatze hori bete ote den egiaztatuko da ondoren datorren puntuan ezarritako lotura juridikoaren mailan.

2.- Onetsitako kredituak mugatzaileak eta lotesleak izango dira, honako lotespen-mailaren arabera:

Pertsonal gastuak (1. kapitulua)

Kapitulua

Ondasun arruntak eta zerbitzuak (2. kapitulua)

- Sailkapen ekonomikoari dagokionean, bi lotura-talde ezartzen dira, eta lotura soilik egin ahal izango da talde berean dauden partiden artean.

A Taldea.- Honako kontzeptu hauek hartzen ditu barruan:

200 Lurren errentamenduak
202 Makineriaren errentamendua
210 Azpiegiturak mantentzeko lanak
211 Eraikinak mantentzeko lanak
212 Makinak mantentzeko lanak
213 Garraio materiala mantentzeko lanak
214 Altzariak mantentzeko lanak
215 Informazioa prozesatzeko ekipoak mantentzeko lanak
220 Bulegoko materiala
221 Hornidura
222 Komunikazioak
224 Aseguru primak
225 Tributuak
226 Hainbat gastu, 226.06 izan ezik
227 Kanpoko enpresen lanak, 227.04 eta 227.07 izan ezik
230 Dietak, langileen lokomozioa.
231 Dietak, hautetsien lokomozioa.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

B Taldea.- Honako kontzeptu hauek hartzen ditu barruan:

223.01 Garraioa
226.06 Jarduerak
227.04 Kontratu soziokulturalak
227.07 Azterketa eta lan teknikoak.

- Sailkapen organikoari dagokionean, organoa

Finantza gastuak (3. kapitulua) eta finantza-pasiboak (9. kapitulua)

3. eta 9. kapituluetakako partida guztiak lotesleak izango dira.

Transferentzia arruntak (4. kapitulua)

Kontzeptua eta organoa.

Lotespen maila honetatik kanpo ondorengo ekarpen hauek geratuko dira:

-Udalaren organismo autonomo eta sozietateei egindako ekarpenak
-Udala partaide den mankomunitate eta entitateei egindako ekarpenak

Inbersio errealak (6. kapitulua)

Artikulua.

Baina 62. artikuluan, artikulua eta organu mailan izango da.

Kapital transferentziak (7. kapitulua)

Kontzeptua eta programa.

Finantza-aktiboak (8. kapitulua)

Kontzeptua eta programa.

Hori guztia kontuan izanik eta Ogasun batzordearen diktamena kontuan hartuz, Udalbatzak, gehiengoz {bi aldiz bozketa egin da emaitza berdina lortuz, hau da, 8 boto aldekoak (Bildu eta Aralar) eta 8 aurkakoak (EAJ/PNV eta PSEE-PSOE), baina erabakiorra izan da Alkatearen kalitatezko botoa}, Bildu eta Aralar alderdien aldeko botoekin eta PSEE-PSOE eta EAJ/PNV aurkako botoekin,

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

ERABAKI DU:

Lehen.- 2015. ekitaldirako Udal Sektore Publikoaren Aurrekontu Orokorra eta Aurrekontua gauzatzeko araua, proposatutako aldaketarekin, haseraz onartzea. Bere laburpena kapituluka hau da:

- **Tolosako udaleko** aurrekontua kapituluka:

| SARRERAK | | | GASTUAK | | |
|----------|-------------------------------------|----------------------|---------|--|----------------------|
| KAP. | IZENA | EUROAK | KAP. | IZENA | EUROAK |
| 1 | Zuzeneko zergak | 5.585.300,00 | 1 | Personal Gastuak | 7.837.733,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 230.000,00 | 2 | Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa | 8.233.813,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 3.804.890,00 | 3 | Finantza- Gastuak | 213.341,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 12.504.160,00 | 4 | Transferentzia arruntak | 3.719.197,00 |
| 5 | Ondare sarrerak | 1.088.650,00 | 6 | Inbertsio errealak | 2.829.000,00 |
| 6 | Inbertsio errealen besterenganaketa | 156.000,00 | 7 | Kapital- Transferentziak | 254.000,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 6.000,00 | 8 | Aktibo finantzarioak | 600.000,00 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | 600.000,00 | 9 | Pasibo finantzarioak | 887.916,00 |
| 9 | Pasibo finantzarioak | 600.000,00 | | | |
| | GUZTIRA | 24.575.000,00 | | GUZTIRA | 24.575.000,00 |

- **Iurramendi Egoitzako** aurrekontua kapituluka:

| SARRERAK | | | GASTUAK | | |
|----------|-------------------------------------|---------------------|---------|--|---------------------|
| KAP. | IZENA | EUROAK | KAP. | IZENA | EUROAK |
| 1 | Zuzeneko zergak | 0,00 | 1 | Personal Gastuak | 1.814.500,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 0,00 | 2 | Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa | 3.072.250,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 1.745.000,00 | 3 | Finantza- Gastuak | 0,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 3.141.250,00 | 4 | Transferentzia arruntak | 0,00 |
| 5 | Ondare sarrerak | 500,00 | 6 | Inbertsio errealak | 0,00 |
| 6 | Inbertsio errealen besterenganaketa | 0,00 | 7 | Kapital- Transferentziak | 0,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 0,00 | 8 | Aktibo finantzarioak | 142.000,00 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | 142.000,00 | 9 | Pasibo finantzarioak | 0,00 |
| 9 | Pasibo finantzarioak | 0,00 | | | |
| | GUZTIRA | 5.028.750,00 | | GUZTIRA | 5.028.750,00 |

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

- Tolosa Lantzeneko aurrekontua kapituluka:

| SARRERAK | | | GASTUAK | | |
|----------|-------------------------------------|---------------------|---------|--|---------------------|
| KAP. | IZENA | EUROAK | KAP. | IZENA | EUROAK |
| 1 | Zuzeneko zergak | 0,00 | 1 | Pertsonal Gastuak | 59.800,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 0,00 | 2 | Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa | 357.200,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 53.900,00 | 3 | Finantza- Gastuak | 0,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 0,00 | 4 | Transferentzia arruntak | 0,00 |
| 5 | Ondare sarrerak | 456.100,00 | 6 | Inbertsio errealak | 670.000,00 |
| 6 | Inbertsio errealen besterenganaketa | 0,00 | 7 | Kapital- Transferentziak | 0,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 600.000,00 | 8 | Aktibo finantzarioak | 6.000,00 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | -17.000,00 | 9 | Pasibo finantzarioak | 0,00 |
| 9 | Pasibo finantzarioak | 0,00 | | | |
| | GUZTIRA | 1.093.000,00 | | GUZTIRA | 1.093.000,00 |

- Tolosa Lantzen S.Aren aurreikusitako Galdu-Irabazien Kontua:

| AZALPENA | ZOR EUROAK | HARTZEKO EUROAK |
|---|---------------------|-------------------|
| <u>1. SARRERAK</u> | | |
| 1.1. Beste ustiapen sarrera batzuk | | 510.000,00 |
| 1.2. Ekitaldiaren emaitzari egotzitako kap.sub. | | 294.000,00 |
| SARRERAK | | 804.000,00 |
| <u>2. GASTUAK</u> | | |
| 2.1. Pertsonal gastuak | 59.800,00 | |
| 2.2. Beste ustiapen gastu batzuk | 357.200,00 | |
| 2.3. Ibilgetuaren amortizazioa | 618.000,00 | |
| GASTUAK | 1.035.000,00 | |
| ZERGEN AURREKOEMAITZA | -231.000,00 | |

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

- **Tolosa Gasako** aurrekontua kapituluka:

| SARRERAK | | | GASTUAK | | |
|----------|-------------------------------------|-------------------|---------|--|-------------------|
| KAP. | IZENA | EUROAK | KAP. | IZENA | EUROAK |
| 1 | Zuzeneko zergak | 0,00 | 1 | Pertsonal Gastuak | 37.662,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 0,00 | 2 | Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa | 306.324,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 510.983,00 | 3 | Finantza- Gastuak | 0,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 0,00 | 4 | Transferentzia arruntak | 0,00 |
| 5 | Ondare sarrerak | 1.200,00 | 6 | Inbertsio errealak | 60.000,00 |
| 6 | Inbertsio errealen besterenganaketa | 0,00 | 7 | Kapital- Transferentziak | 0,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 0,00 | 8 | Aktibo finantzarioak | 0,00 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | -108.197,00 | 9 | Pasibo finantzarioak | 0,00 |
| 9 | Pasibo finantzarioak | 0,00 | | | |
| | GUZTIRA | 403.986,00 | | GUZTIRA | 403.986,00 |

- **Tolosa Gasa S.Aren** aurreikusitako Galdu-Irabazien Kontua

| AZALPENA | ZOR EUROAK | HARTZEKO EUROAK |
|---|-------------------|--------------------|
| <u>1.SARRERAK</u> | | |
| 1.1. Negozio zifraren zenbateko garbia | | 506.183,40 |
| 1.2. Beste ustiapen sarrera batzuk | | 4.800,00 |
| 1.3. Ekitaldiaren emaitzari egotzitako kap.sub. | | 180,00 |
| 1.4. Sarrera finantzarioak | | 1.200,00 |
| SARRERAK | | 512.363,40 |
| <u>2. GASTUAK</u> | | |
| 2.1. Pertsonal gastuak | 37.662,00 | |
| 2.2. Beste ustiapen gastu batzuk | 237.324,00 | |
| 2.3. Ibilgetuaren amortizazioa | 55.500,00 | |
| GASTUAK | 330.486,00 | |
| ZERGEN AURREKO EMAITZA | 181.877,40 | |

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

- **Erretengibel**eko aurrekontua kapituluka:

| SARRERAK | | | GASTUAK | | |
|----------|-------------------------------------|-------------------|---------|---|-------------------|
| KAP. | IZENA | EUROAK | KAP. | IZENA | EUROAK |
| 1 | Zuzeneko zergak | 0,00 | 1 | Pertsonal Gastuak | 120.900,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 0,00 | 2 | Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak | 50.453,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 1.500,00 | 3 | Finantza- Gastuak | 9.526,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 251.000,00 | 4 | Transferentzia arruntak | 45.000,00 |
| 5 | Ondare sarrerak | 30.000,00 | 6 | Inbertsio errealak | 108.000,00 |
| 6 | Inbertsio errealen besterenganaketa | 0,00 | 7 | Kapital- Transferentziak | 111.000,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 219.000,00 | 8 | Aktibo finantzarioak | 12.000,00 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | 12.000,00 | 9 | Pasibo finantzarioak | 56.621,00 |
| 9 | Pasibo finantzarioak | 0,00 | | | |
| | GUZTIRA | 513.500,00 | | GUZTIRA | 513.500,00 |

- Erretengibel S.A.ren aurreikusitako Galdu-Irabazien Kontua

| AZALPENA | ZOR EUROAK | HARTZEKO EUROAK |
|---|-----------------------|----------------------------|
| <u>1.SARRERAK</u> | | |
| 1.1. Beste ustiapen sarrera batzuk | | 393.500,00 |
| 1.2. Ekitaldiaren emaitzari egotzitako kap.sub. | | 25.000,00 |
| SARRERAK | | 418.500,00 |
| <u>2. GASTUAK</u> | | |
| 2.1. Pertsonal gastuak | 121.100,00 | |
| 2.2. Beste ustiapen gastu batzuk | 206.253,00 | |
| 2.3. Ibilgetuaren amortizazioa | 31.000,00 | |
| 2.4. Gastu finantzarioak | 9.526,00 | |
| GASTUAK | 367.879,00 | |
| ZERGEN AURREKO EMAITZA | 50.621,00 | |

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

- **Tolosa Lotzeneko** aurrekontua kapituluka:

| SARRERAK | | | GASTUAK | | |
|----------|-------------------------------------|------------------|---------|---|------------------|
| KAP. | IZENA | EUROAK | KAP. | IZENA | EUROAK |
| 1 | Zuzeneko zergak | 0,00 | 1 | Pertsonal Gastuak | 0,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 0,00 | 2 | Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak | 10.000,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 0,00 | 3 | Finantza- Gastuak | 0,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 10.000,00 | 4 | Transferentzia arruntak | 0,00 |
| 5 | Ondare sarrerak | 0,00 | 6 | Inbertsio errealak | 0,00 |
| 6 | Inbertsio errealen besterenganaketa | 0,00 | 7 | Kapital- Transferentziak | 0,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 0,00 | 8 | Aktibo finantzarioak | 0,00 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | 0,00 | 9 | Pasibo finantzarioak | 0,00 |
| 9 | Pasibo finantzarioak | 0,00 | | | |
| | GUZTIRA | 10.000,00 | | GUZTIRA | 10.000,00 |

Tolosa Lotzen S.A.ren aurreikusitako Galdu-Irabazien Kontua:

| AZALPENA | ZOR EUROAK | HARTZEKO EUROAK |
|------------------------------------|-----------------------|----------------------------|
| <u>1.SARRERAK</u> | | |
| 1.1. Beste ustiapen sarrera batzuk | | 10.000,00 |
| SARRERAK | | 10.000,00 |
| <u>2. GASTUAK</u> | | |
| 2.1. Beste ustiapen gastu batzuk | 10.000,00 | |
| GASTUAK | 10.000,00 | |
| ZERGEN AURREKO EMAITZA | 0,00 | |

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

- **Tolargiko** aurrekontua kapituluka:

| SARRERAK | | | GASTUAK | | |
|----------|-------------------------------------|---------------------|---------|--|---------------------|
| KAP. | IZENA | EUROAK | KAP. | IZENA | EUROAK |
| 1 | Zuzeneko zergak | 0,00 | 1 | Pertsonal Gastuak | 447.500,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 0,00 | 2 | Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa | 848.900,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 1.432.000,00 | 3 | Finantza- Gastuak | 15.600,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 0,00 | 4 | Transferentzia arruntak | 0,00 |
| 5 | Ondare sarrerak | 0,00 | 6 | Inbertsio errealak | 120.000,00 |
| 6 | Inbertsio errealen besterenganaketa | 0,00 | 7 | Kapital- Transferentziak | 0,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 0,00 | 8 | Aktibo finantzarioak | 40.000,00 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | 40.000,00 | 9 | Pasibo finantzarioak | 42.000,00 |
| 9 | Pasibo finantzarioak | 0,00 | | | |
| | GUZTIRA | 1.472.000,00 | | GUZTIRA | 1.472.000,00 |

Tolargi S.Lren aurreikusitako Galdu-Irabazien Kontua

| AZALPENA | ZOR EUROAK | HARTZEKO EUROAK |
|---|-----------------------|----------------------------|
| <u>1. SARRERAK</u> | | |
| 1.1. Negozio zifraren zenbateko garbia | | 1.382.000,00 |
| 1.2. Beste ustiapen sarrera batzuk | | 50.000,00 |
| 1.3. Ekitaldiaren emaitzari egotzitako kap.sub. | | 20.700,00 |
| SARRERAK | | 1.452.700,00 |
| <u>2. GASTUAK</u> | | |
| 2.1. Pertsonal gastuak | 452.500,00 | |
| 2.2. Beste ustiapen gastu batzuk | 424.500,00 | |
| 2.3. Ibilgetuaren amortizazioa | 425.000,00 | |
| 2.4. Gastu finantzarioak | 15.600,00 | |
| GASTUAK | 1.317.600,00 | |
| ZERGEN AURREKO EMAITZA | 135.100,00 | |

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

SARRERAK

| Kap | Izena | Udala | Iurreamendi | Tolargi | Erretengibel | Lantzen | Gasa | Lotzen | Bateratua |
|-----|-------------------------------------|-------------------|------------------|------------------|---------------|------------------|----------------|----------|-------------------|
| 1 | Zuzeneko zergak | 5.575.600 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 5.575.600 |
| 2 | Zeharkako zergak | 230.000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 230.000 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 3.421.030 | 1.745.000 | 1.432.000 | 1.500 | 53.900 | 510.983 | 0 | 7.164.413 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 12.504.160 | 2.881.250 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 15.385.410 |
| 5 | Ondare sarrerak | 481.250 | 500 | 0 | 30.000 | 456.100 | 1.200 | 0 | 969.050 |
| 6 | Inbertsio errealen besterenganaketa | 156.000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 156.000 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 6.000 | 0 | 0 | 0 | 120.000 | 0 | 0 | 126.000 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | 600.000 | 142.000 | 40.000 | 12.000 | 463.000 | -108.197 | 0 | 1.148.803 |
| 9 | Pasibo finantzarioak | 600.000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 600.000 |
| | GUZTIRA | 23.574.040 | 4.768.750 | 1.472.000 | 43.500 | 1.093.000 | 403.986 | 0 | 31.355.276 |

GASTUAK

| Kap | Izena | Udala | Iurreamendi | Tolargi | Erretengibel | Lantzen | Gasa | Lotzen | Bateratua |
|-----|--|-------------------|------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|---------------|-------------------|
| 1 | Pertsonal Gastuak | 7.837.733 | 1.814.500 | 447.500 | 120.900 | 59.800 | 37.662 | 0 | 10.318.095 |
| 2 | Gastuak ondasun arrunta eta zerbitzuetan | 8.233.813 | 3.071.850 | 176.100 | 38.453 | 75.700 | 287.664 | 10.000 | 11.893.580 |
| 3 | Finantza Gastuak | 213.341 | 0 | 0 | 9.526 | 0 | 0 | 0 | 222.867 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 3.198.197 | 0 | 0 | 45.000 | 0 | 0 | 0 | 3.243.197 |
| 6 | Inbertsio errealak | 2.829.000 | 0 | 120.000 | 108.000 | 670.000 | 60.000 | 0 | 3.787.000 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 35.000 | 0 | 0 | 111.000 | 0 | 0 | 0 | 146.000 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | 600.000 | 142.000 | 40.000 | 12.000 | 6.000 | 0 | 0 | 800.000 |
| 9 | Pasibo finantzarioak | 887.916 | 0 | 0 | 56.621 | 0 | 0 | 0 | 944.537 |
| | GUZTIRA | 23.835.000 | 5.028.350 | 783.600 | 501.500 | 811.500 | 385.326 | 10.000 | 31.355.276 |

Bigarren.- Aurrekontu Orokorra hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan ipintzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten, epe barruan, Aurrekontu Orokorra behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

Parte hartzeak:

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: “Esan dezakegu 2015eko aurrekontuak 3 ezaugarri nagusi dituela. Inoiz baino aurrekontu sendo, egonkor eta parte hartzaileen kontsideratzen ditugu. Sendoak; lortu delako Udalaren zorra erdira jaitea. Egonkorra; muga bat daukagu, 2/2012 legeak jartzen diguna. Gai izan gara inbertsioen %75a gure baliabide propioetatik finantzatzeko. Eta inoiz baino parte hartzaileagoak; ezinbestekoa delako herritarren parte hartzea sustatu eta bermatzea aurrekontuak egiteko garaian. Aurten 200.000 euro jarri dira erabakitzeke zertan gastatu eta islada izango dute 2015eko aurrekontuan.

Aipatzearren, nabarmenenak diren 4 atal:

- 1.- Landa auzoari dagokionez: bizirik mantentzeko ezinbestekoa da azpiegituretan inbertitzea eta zerbitzuak areagotzea.
- 2.- Gizarte zerbitzuak: garai zailak bizitzen ari gara eta Udalak garai hau leuntzen lagundu behar du. Jarraituko dugu dauden zuloak tapatzen, emergentziko laguntzak areagotzen. Abegi zentruan ere finantzaketaren erdia Udalari dagokio eta 2016an %100 gureganatuko genuke.
- 3.- Tokiko garapena: datorren urtera begira, merkataritzak Tolosan duen garrantzia ikusirik, aurrekontuetan atal propio bat sortzea planteatzen da eta 200.000 euro inguru izango luke kudeatzeko atal horrek.
- 4.- Memoria historikoa: kultur atalean 30.000 euro jarriko lirateke Arantza adik bilduma egin dezan.

Inbertsio atalari dagokionez daukagu: Elosegi parkearen desjabetza, datorren urtean Santa Luziko desjabetzak, landa auzokoa eta modu berritzailean Bidebieta urbanizazioko lehen fasea.”

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: “Aurrekontu hauek ez dute beste urteetako aurrekontuekin aldagata haundirik. Gastu sozialak du lehentasuna. Desjabetza horiek ordaintzea da beste lehentasun bat eta horrek jartzen ditu muga batzuk aurrekontuetan. Iruditzen zait aurrekontu hauek Tolosa eta Tolosarentzat onak direla. Gu prest gaude oposizioak dituen proposamenak aztertu eta lantzeko eta, egingarriak badira, aurrekontuan txertatzeko. Aralarrek babestuko ditu aurrekontuak.”

... Jose Ignacio Asensio Bazterra: “Aurrekontu hauek %6ko jaitsiera dute eta hori ez zait berri ona iruditzen, bereziki Gizartze Zerbitzuetan izan dezakegun beharrei aurre egiteko. Datorren urteko aurrekontu hauek aurrekoaren kalko bat besterik ez dira. Zenbait gastuekin ez gaude ados eta batzuk aipatuko ditut: UEMaren aportazioarekin ez gaude ados eta Udalbiltzarekin

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

berdin. Gizarte larrialdietarako laguntzetan, nahiz eta Udalaren eskumena ez izan, aurreikusten den defizitak nolabait kezkatzen gaitu. Gauza bera gertatzen da Enpleguaren sustapenarekin eta eskualdeko enplegu planari eta Tolosakoari ez aurreikusteak inungo kopururik kezkatzen gaitu. Zaborbilketaren gastuari buruz, esan ikusiko dugula nola likidatzen den gastu hau aurrekontuetan; inbertsioak: Akats nagusia hau da; ez da etorkizunerako proiektu estratejikorik aurreikusten. Mantenimenduko aurrekontu bat gehiago dirudi. Horregatik nere bozka kontrakoa izango da.”

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: “2015erako aurrekontuen inguruan EAJ-PNVren proposamenak eta BILDUren aurrekontu-proposamenaren inguruan EAJ-PNVk egiten duen balorazioa

Balorazio orokorra: BILDUren aurrekontu horiek ez dute anbiziorik, ez diete aurre egiten tolosarren premiei, guk lehentasunak jartzen ditugu gizarte zerbitzuetan, enpleguan, sustapen ekonomikoan eta auzotarren giza-ongizatean. Aurrekontu horietan betikoa dago, berririk ez. Behingoz hauteskunde garaian, behin eta berriz EAJ-PNVk proposatu duena eta BILDUK orain arte onartu ez duena egingo da, Bidebieta auzoa berrurbanizatzen hastea. Erabilera elektoralak dago honen atzetik.

Bilduk dio aurreko legealdiko zorrak jaitsi dituela nabarmen. Honen aurrean esan behar da aurreko legealdian zorrak puntualki ordaintzen zirela inolako arazorik gabe, orduan ere krisialdian egonda (mailegua Usabal polikiroldegia eraikitzerakoan burutu zen). Zorra jaitzen ari da BILDUK “proiektuen karpeta” hutsik izan duelako legealdi osoan, ez du proiektu berririk, herentzia gestionatu du, aurrekoak abian jarritakoa burutu du, ez besterik. BILDUren inaktibitateak eta anbizio faltak ekarri du zorra gehiago jaitea.

Zorra ordaintzeko inoiz ez da arazorik egon, proiektu berriak garatu behar dira aurrera begira eta ez dago bat bera ere mahai gainean une honetan, daudenak dira EAJ-PNVk proposatutakoak eta kudeatutakoak (Amarotzeko urbanizazioa, Arriarango rotonda, etxebizitza babestuak alogeran Euskalherria plazan, aurten Bidebieta auzoa berrurbanizatzea, Berazubi estadioa berritzea,...).

Partaidetza eta transparentzia aipatzen da behin eta berriz, badute horretan zer egina, Tolosarren ia erdia ordezkatzeko duen alderdiari informazioa ukatzen dio BILDUK, urrutirago joan gabe zaborren kudeaketan adibidez.

Aurrekontuen egonkortasuna betidanik egon da bermatua ez bakarrik BILDUren legealdian, Tolosako udalak aurreko legealdian ere aurrekontu sendoak izan ditu, txosten teknikoak begiratu besterik ez dago.

Hemen doaz 2015erako aurrekontuetarako proposamen berriak:

1.- **Udalbiltzari dirulaguntza** (15.000 euro): ez dugu ekarpen hau onartzen, diru hau proposatzen dugu gizarte zerbitzuetako etxez etxeko laguntzetara igortzea, partida horretan

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

dagoen kreditua ez baita nahikoa beharrei aurre egiteko (800.000 euro daude aurrekontuetan eta 850.000 euro behar dira).

2.-**Uemari dirulaguntza** (18.000 euro). Uemak ez dio inolako balio erantsirik ematen Tolosako udalari, Tolosako udalak bai baitu nahiko azpiegiturarik eta hitzarmenik euskalgintza sozialarekin euskararen erabileran lan egiteko. Ikusi besterik ez dago urte osoan Euskara Batzordean eztabaidatu ditugun kontuetan ez da UEMA inon aipatzen ez bada UEMAREN festa eguna ospatzeko eta berari urteko kuota ordaintzeko. Tolosari ez dio balio erantsirik ematen, "zerga politikoa" da. Diru hori erabili beharko genuke Tolosarren eta udalaren arteko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko. Horretarako, sentiberatze kanpainak eta udalarekin euskaraz harremanak burutzeko bideak lantzeko proposatuko du EAJ-PNV 18.000 euro jartzea.

3.- **Zabor kontuak**: Tolosaldeako mankomunitateari dirulaguntza ematea. Honetan ez dugu onartzen diru-partida hori jartzea. Dirudenez, 2014an baino diru gutxiago jarri beharko da mankomunitatean. Honen inguruan esan behar argibideak eskatu ditugula ahoz, idatziz, batzordeetan, eta eskatutakoa ez zaigu eman, transparentzia falta izugarria da eta udal honek, BILDU buru dela, hitz politikak erabiliz, ez digu informaziorik ematen. Iluntasuna da nagusi, eta egoera horretan ez gaude prest partida hori onartzeko, guk jakin nahi dugu Mankomunitateak zertan gastatzen duen dirua, zertan gastatzen duen tolosar guztion dirua. Udala konplizea da kontu honetan, kideak ditu Mankomunitatean eta ez digu informaziorik ematen. Are gehiago, besterik ezean, Tolosaldeko mankomunitateari guk diru gutxiago eman behar badiogu zaborren kontura 2015ean, ez dugu onartzen zabor tasa %5 igotzea datorren urtean. Bizi dugun krisialdiarekin ez du zentzurik herritarrei gainkarga hori jartzea.

4.- Enplegua

4.1.- Enplegua sustatzeko udalak bere zenbait lokal hutsak eta erabili gabeak Tolosarren eskura jarriko ditu, neurri batean egokituta (Inbertsioak: 40.000 euro): Larramendi, Rondilla kalean,...

4.2.- Turismo bulegoa irikitzeko lehen urratsak eman (lehen inbertsioa):100.000 euro. Turismoaren jaitsiera nabarmena da azken urteotan Tolosaldean eta horri aurre egiteko lehen urratsa da Turismo bulegoa leku estrategikoan jartzea.

4.3.- Merkataritza sustatzea: Ez dugu garbi ikusten ere udaleko merkataritza eta enplegu sailerako beharrezkoa denik administrari laguntzaile bat, ez dugu ikusten ze eginbehar izango dituen. Aldiz, prest egongo ginateke aztertzeke merkataritza sustatzeko teknikari baten kontratazioa aztertzeke eta horrekin aurrera egiteko. Feriak indartu behar dira, horretan beharrezkoa da Txuleta eta bixiguaren feriak berrindartzea, duten "atrakzio" indarra aprobetxatuz. Hori ez da aurrekontuetan isladatzen, betikoa dago eta ezer gutxi gehiago.

4.5.- "Gune Biziak": Programa hau indartzea proposatzen dugu, gaur egun zenbait Tolosako kaleetako bizitasun soziala jeisten ari da eta beharrezkoa da ekimen pribatuarekin ahalegin berezia egitea itxita dauden dendak berpizteko. 2014ean Tolosako udalak jasotako diru

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

laguntza galdu egin du ez duelako behar den epean erabili eta gure proposamena da honek beste maila bateko bultzada behar duela (7. Kapitulua, inbertsioak: 24.000 euro jartzea proposatzen dugu, aurrekontuetan dagoena bikoiztea eta kapituluz aldatzea).

5.- Gizarte zerbitzuak

5.1.-“ Gizarte zerbitzuak” deituriko programan eta dirulaguntzen atalean “taldeei dirulaguntzak” deiturikoan diru-partida handitzea bereziki egoera zailean dauden tolosarrei laguntza emateko. Helburu hori duten elkarteei (lehen mailako premiei aurre egitea: bai jakietan, erropetan, garbitzeko osagaietan) diru laguntza handituko zaie. Hemen diru partida zenbat igotzen den jarri beharko genuke, gaur egun 40.200 euro daude. Hain zuzen ere proposatzen dugu Gurutze Gorriari garbiketarako produktuak behartsuen artean banatzeko 3.000 euro gehiago ematea. Orain arte 1.000 euro eman zaizkio udaletik eta honen baitan 4.000 euro ematea proposatzen dugu urte osoan dituzten premiei aurre egiteko. Bestalde, Caritasi ere behartsuek dituzten premiei aurre egiteko urtean 2.200 gehiago behar dituzte bere esanetan 2015erako, orain arte 9.050 euro eman zaizkio eta bere defizita estaltzeko 11.250 euro behar dituzte. Beraz, guztira 40.200 euroko partida hori 45.400 euro tara igotzea proposatzen dugu.

6.- Azpiegiturak, inbertsioak

6.1.- 2015erako inbertsioetan bi aktuazio proposatzen dira bi urteetan (2015-2016) garatuko direnak, bi obrak aurten hasiz. Batetik, aurrekontuetan proposatzen da Bidebieta auzoa berrurbanizatzeko 1.000.000 euro jartzea (lehen fasea). Bada garaia ahaztuta utzita dagoen auzo honetan lanean hasteko. Hauteskunde garaia etortzea ezinbestekoa izan da Bilduko gobernua arazo honi irtenbidea emateko. EAJ-PNV 2012 ezkerotik dabil eten gabeen auzo honen duintasuna zaintzearen aldarrikapena egiten eta BILDUK beti bizkar eman dio kontu honi. Halere, zorionak behingoz arazo honi aurre egiteagatik.

EAJ-PNVk bigarrenko aktuazio hau proposatzen du, beronek lagunduko duelakoan ere dendaritza eta ekonomiaren sustapenean: Nafarroa etorbidea berrurbanizatzea (1.000.000 euro).

Bi obra horiek abian jarriko genituzke 2015ean baina biak ere amaituko lirateke 2016an. Horiek horrela era honetako periodifikazioa proposatzen dugu:

-Bidebideta berrurbanizatzea: 2015ean 700.000 euro, eta 2016ean 300.000 euroko kreditu konpromisoa.

-Nafarroa etorbidea berrurbanizatzea: 2015ean 300.000 euro, eta 2016an 700.000 euroko kreditu konpromisoa.”

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

- ... Lore Agirre Zipitria, Bildu: *“Ulertzen ditut desadostasunak, baina badakizue aurrekontuak onak direla. Inbertsioari dagokionez, hor dago Bidebietako proiektua. Beti esan da Udalaren egoera ekonomikoa saneatu beharra zegoela horrelako dimentsioko proiektu bat martxan jartzeko. Badakigu legealdi honetan zulo handiena sortu dituenak desjabetzak eta Elosegri parkea izan direla. Udalbiltza, UEMA eta Mankomunitateari egiten zaion ekarpenaren inguruan dezakegun eztabaida aparte utzita, esandako proposamenak egingarriak izan daitezke. Udalak konpromisoa har dezake hauek lantzeko. Tolosa eta Tolosarentzat alderdi guztiak elkarrekin lan egitea da garrantzitsuena eta eskua luzatzen dizuegu elkarrekin lanean jarraitzeko eta proposamen hauek lantzeko.”*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: *“Presupuesto bati batzuetan ezezkoa ez ematea, eta abstenitzeak, ez du esaten guztia onartzen dela, baina bai jarrera bat dagoela lana elkarrekin egiteko ala ez. Gu hemen gaudenean zuentzat izango da UEMA arrazoia aurrekontuak ez onartzeko. Zuek gobernuan zaudetenean guretzat izango da UEMA subentziorik ez emateagatik. Hori da herritarrek behar dutena krisi garai honetan? Ez zait iruditzen. Azken hiru urtetan oposizioaren lana hori izan da; zuria hala beltza. Nik uste badala garaia grisa izateko ere. Zer ematen dion UEMAk udalerrri honi? Tolosak UEMAn egon behar du, Tolosa delako eskualde honen hiriburua. Hemen elkartzen dira Tolosaldeko jendearen zerbitzu asko. Tolosa UEMAn egotea inportantea da beste herri batzuk ere animatzen ari direlako. Eta gure euskarako zerbitzuaren eguneroko erabileran ez du eraginik, baina kalean hizkuntz normalizazioaren irudia eta lidergoak asko jokatzeko dute eta hori Tolosak egin behar du.”*
- ... Jose Ignacio Asensio Bazterra: *“Ez da Udalbiltza eta UEMA bakarrik. Baita ere enpleguaren sustapena, nahiz eta beste instituzioen dirulaguntza behar, ez dugu aurreikusi aurrekontu hauetan diru ekarpenik. Aurten Bidebietako inbertsioa zorientzekoa da, baina etorkizunerako ez da inungo proiekturik ikusten. Hori da aurrekontu hauen akatsik nagusia. Nik kontra bozkatuko dut.”*
- ... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: *“Elosegri Pakearen inguruan, hasieratik eman ziren urratsak eta errekurtsioak amaitzeraino eraman dira. Gure jarrera aldatu liteke hiru marra gorriak kenduta? Guk zuzenketa batzuk proposatu ditugu eta zuek baloratu behar dituzue ados zaudeten edo ez. Bestalde, Mankomunitateari buruz zerbait eskatzen dugunean, ez dugu informaziorik jasotzen, eta horrekin ezin dugu baiezkorik eman. UEMARI buruz nik uste ahalegina egin behar dela, Tolosaldean 28 herri badira gu baino behar gehiago duten beste 27 herri.”*
- ... Alkatea: *“Parke Elosegiren gastua aurrekontu arruntetik ari gara ordaintzen eta horrek dakar beste inbertsiorik ez egitea. Diru hori beste gauza batzutarako ezin dugu bideratu. Sustatzeko aukera izango genuke: Nafarroa Etorbidea, Polikiroldegiko 4. fasea, Elosegri parkearen bost faseak, “Antigua Miserikordia”ren ingurua egokitu, e.a. Baina aukeratu egin behar izan dugu eta, momentu honetan, gastu sozialak eta herritarrak dute lehentasuna. Momentu honetan inbertsioa pertsonetan zentratu behar dugu eta aurrekontu horiek ikusirik, maniobratzeko dugun malgutasunaren arabera bideratu behar ditugu inbertsioak. Guk ez dugu arazorik, eta konpromisoa hartzen dugu, baina zuhertasunez jokatu behar dugu, Nafarroa etorbidean obra horiek egiteko. Zergatik? Aurrena proiektua egin behar delako eta ebazpena etorriko delako*

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

Kondeaneko Aldapan alokairua sustatzeko eta ebazpen horrekin dirulaguntza jasoko du Udalak. Baina zortziehun eta milla pikoko inbertsioa egin beharko da, eta horretarako kreditu aldaketa egin beharko dugu. Ikusten bada oraindik tartea dagoela, sartuko gara Nafarroa Etorbideko obrak egitera, baina malgutasuna eduki behar dugu. Udal gobernu bezala konpromisoa hartzen dugu ahal dugun proiektu gehien garatzeko, baina 24,8 milioiek ematen dute ematen dutena. Aurrekontu onak dira eta nik abstentzioa eskertuko nuke, jakinda proiektu bateratuak ateratzeko prest egongo garela.”

5- Ordenantza fiskalen aldaketa: EIOZ.

5.- Modificación de ordenanzas fiscales: ICIO.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga zeharkako tributu bat da, eta bere zerga-gaia sortzen da Tolosa barruan edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteagatik, horretarako obra edo hirigintza lizentzia jasotzea exijitzen denean, lizentzia hori jaso edo ez, edo erantzukizunezko aitortpena edo aurretiatzko komunikazioa aurkeztu beharra dagoenean, baldin eta lizentzia ematea edo kontrol jarduera egitea zerga aplikatzen duen udalari badagokio.

Uztailaren 5eko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauak erregulatzen du zerga. Foru Arauaren 3. artikulua dio oinarri ezargarria aurrekontuaren kostu materiala dela. Oinarri ezargarriari karga tasa aplikatuz ateratzen da zergaren kuota.

Foru Arauaren 3.3 artikulua, aldiz, ondorengoa dio: “Zergaren karga tasa Udalak finkatuko du, eta ezingo da 100eko 5etik gorakoa izan.”

Gaur egun, ordenantza fiskaletan ondorengoa dugu:

ERAIKUNTZAK, INSTALAZIOAK ETA OBRAK – IMPTO.SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS

| | | |
|---|--|----|
| 1. Eraikuntza, instalazio eta obrak: | 1. Construcciones, instalaciones y obras en general | %5 |
| 2. Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak egiteko eraikuntza berriko obrak; Alde Zaharreko eremuen esparru geografikoan egindako obrak, hau da, eremu hauetakoak: 7.1.“Ezkerraldea”, 7.2. “Elosegi Txapelak”, 7.3. “Alde Zaharra”, 9.1. “Plaza Euskal Herria eta ingurua” y 6.3 “Santa Klarako Errebala”; nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinak obrak; eta Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren obrak, baldin eta VISESAren instantziak egin badira eta udal babesa duten lur ondasunetan egiten diren obrak. | 2. Obras de nueva planta destinadas a viviendas de protección oficial de régimen general; obras efectuadas en el ámbito geográfico de las áreas de Casco Antiguo, esto es, en los subámbitos 7.1.“Margen Izquierda”, 7.2. “Boinas Elosegui”, 7.3. “Casco Viejo”, 9.1. “Plaza Euskal Herria y entorno” y 6.3 “Arrabal de Santa Clara” obras destinadas exclusivamente a explotaciones agropecuarias y bienes inmuebles vinculadas a la misma; y obras que se realicen en viviendas que se incorporen al Programa Bizigune, cuando dichas obras se hayan efectuado a instancia de VISESA y obras en bienes inmuebles de protección municipal | %2 |
| 3. “Nekazari profesional” edo “Nagusiki Nekazari” kalifikazioa dutenentzako beraien ustiapena osatzen duten elementu guztietarako, bizilekua ezik. | 3. Para todos los elementos de la explotación, excepto vivienda, de aquellos que tengan la calificación de “Agricultor Profesional” y “Principalmente Agricultor”. | %1 |

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

| | | |
|---|--|----|
| 4. Promozio publikoko oin berriko obrak, araubide bereziko etxebizitza babestuen edo etxebizitza sozialen erregimen juridiko eta ekonomikoan. | 4. Obras de nueva planta de promoción pública bajo el régimen jurídico y económico de viviendas de protección oficial de régimen especial o viviendas sociales | %0 |
|---|--|----|

Taula hau aldatzea diktaminatzen da. Ondorengo da diktamena: lokaletan egiten diren eraikuntza, instalazio eta obren kasuetan, 50.000 euro beherako oinarri ezargarria duten kasuetan, karga tasa %0 izatea.

ERAIKUNTZAK, INSTALAZIOAK ETA OBRAK – IMPTO.SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS

| | | |
|---|---|----|
| 1. Eraikuntza, instalazio eta obrak: | 1. Construcciones, instalaciones y obras en general | %5 |
| 2. Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak egiteko eraikuntza berriko obrak; Alde Zaharreko eremuen esparru geografikoan egindako obrak, hau da, eremu hauetakoak: 7.1."Ezkerraldea", 7.2. "Elosegi Txapelak", 7.3. "Alde Zaharra", 9.1. "Plaza Euskal Herria eta ingurua" y 6.3 "Santa Klarako Errebala"; nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinetak obrak; eta Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren obrak, baldin eta VISESAren instantziaz egin badira eta udal babesa duten lur ondasunetan egiten diran obrak. | 2. Obras de nueva planta destinadas a viviendas de protección oficial de régimen general; obras efectuadas en el ámbito geográfico de las áreas de Casco Antiguo, esto es, en los subámbitos 7.1."Margen Izquierda", 7.2. "Boinas Elosegi", 7.3. "Casco Viejo", 9.1. "Plaza Euskal Herria y entorno" y 6.3 "Arrabal de Santa Clara" obras destinadas exclusivamente a explotaciones agropecuarias y bienes inmuebles vinculadas a la misma; y obras que se realicen en viviendas que se incorporen al Programa Bizigune, cuando dichas obras se hayan efectuado a instancia de VISESA y obras en bienes inmuebles de protección municipal | %2 |
| 3, "Nekazari profesional" edo "Nagusiki Nekazari" kalifikazioa dutenentzako beraien ustiapena osatzen duten elementu guztietarako, bizilekua ezik. | 3, Para todos los elementos de la explotación, excepto vivienda, de aquellos que tengan la calificación de "Agricultor Profesional" y "Principalmente Agricultor". | %1 |
| 4. Promozio publikoko oin berriko obrak, araubide bereziko etxebizitza babestuen edo etxebizitza sozialen erregimen juridiko eta ekonomikoan. | 4. Obras de nueva planta de promoción pública bajo el régimen jurídico y económico de viviendas de protección oficial de régimen especial o viviendas sociales | %0 |
| 5. Jarduera ekonomikoaren lotutako lokaletan egindako obren kasuetan, 50.000 eurotik beherako aurrekontu materiala duten obretan | 5. En caso de obras en locales con actividad económica, obras con coste inferior a 50.000 euros | %0 |

Hortaz, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 d) eta 49. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta espedienteaz aztertu ondoren, Ogasun batzordearen dikmenarekin bat etorri, Udaltzatzen, aho batez,

Por todo ello, de conformidad con los artículos 22.2 d) y el 49 de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, examinado el expediente y a la vista del dictamen de la Comisión de Hacienda, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad,

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

ERABAKI DU:

Lehena.-Hasierako onespena ematea Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren Ordenantza aldaketari.

Bigarrena.-Espedientea 30 egunez jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ediktu taulan argitaratuz, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena.-Araudia behin betiko onartutzat jotzea, aurreko puntuan adierazitako epean ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten.

ACUERDA:

Primero.-Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza municipal reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

Segundo.-Someter el expediente a información pública, publicando un anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en Tablón de Edictos del Ayuntamiento, por el plazo de treinta días para presentación de reclamaciones y sugerencias.

Tercero.-Si no se presentara alegación alguna dentro del plazo establecido, considerar aprobada definitivamente la citada Ordenanza.

6.-2015ko ekitaldirako Tolosako udaleko eta 6.-Aprobación de la plantilla orgánica del lurreamendi Egoitzakoa plantila onartzea. Ayuntamiento de Tolosa y de la Residencia lurreamendi para el año 2015.

Toki Erakundeen Oinarriak erregulatzen dituen legeak 90. artikulua eta Testu Bateratuak 126. artikuluan diotenaren arabera, Bildu eta Aralar alderdien aldeko botoekin eta EAJ/PNV eta PSOE alderdien abstentzioarekin, Udaltzakoak, gehiengoz,

ERABAKI DU:

Lehen.- 2015. ekitaldirako Plantila **onartzea** aktaren 1. eranskinean agertzen den bezala.

- a) Funtzionarioen arloan arkitekto-tekniko plaza eta ordenantza jakinarazle plaza amortizatzen dira.
- b) Funtzionarioen arloan goi-ingenieri plaza bat eta administrari plaza bat sortzen dira.

Bigarren.- Plantilaren onarpenari dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Jokin Azkue Arrastoak hitza hartu du esateko abstenitu egingo direla bai plantilla eta bai lanpostu zerrendan. EAJ/PNVren ustetan Garapen Ekonomiko eta Merkataritzako atal horretan administrari premia ez dutela ikusten, bai, aldiz, Goi Mailako teknikari plaza sortzea.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

...Lore Agirre Zipitria, Bildu: “*Merkataritzari garrantzia eman nahi zaio eta egin diren ikerketa batzuen ondorioz beharrezkoa ikusten da horrelako perfil bat.*”

7.-Tolosako Udaleko eta Iurramendi Egoitzako 2015 urterako lanpostuen zerrenda onartzea. **7.- Aprobación de la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Tolosa y de la Residencia Iurramendi para el 2015.**

Toki Erakundeen Oinarriak erregulatzen dituen legeak 90. artikuluan eta Testu Bateratuak 126. artikuluan diotenaren arabera, Bildu eta Aralar alderdien aldeko botoekin eta EAJ/PNV eta PSOE alderdien abstentzioarekin, Udalbatzak, gehiengoz,

ERABAKI DU:

Lehen.- Onartzea Udalari dagokion lanpostuen zerrenda, 2015eko plantilari egokitua, aktari lotzen zaion 2. eranskinaren arabera.

a) Lanpostuen zerrendan arkitekto-tekniko eta ordenantza jakinarazle lanpostuak amortizatzen dira.

b) Lanpostuen zerrendan goi-ingenieri eta administrari lanpostuak sortzen dira.

Bigarren.- Lanpostuen zerrendaren onespenerari dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

8.- Jakinaren gainean geratzea zinegotzi baten kargu uztea.

8.- Tomar conocimiento de la renuncia del cargo de una concejal.

Bildu- Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba La concejal del grupo Bildu- Eusko Eraikitzen taldearen zinegotzia den Rosa Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen, Rosa Maria Urkola Irigoienek karguari uko egin dio Maria Urkola Irigoien, presenta mediante el dagokion idazkia aurkeztuz. Egoera hau correspondiente escrito su dimisión del cargo aztertu ondoren, eta Hauteskunde-Eraentza de concejal del Ayuntamiento de Tolosa, y Orokorra arautzen duen Lege Organikoaren considerando lo dispuesto por el artículo 182 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, el Pleno de la Corporación municipal

ERABAKI DU:

ACUERDA:

Lehen.- Jakinaren gainean geratzea Bildu- **Primero.-** Tomar conocimiento de la renuncia Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen del cargo de la concejal Rosa Maria Urkola taldeko Rosa Maria Urkola Irigoienek zinegotzi Irigoien, por el grupo político Bildu- Eusko

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

karguari uko egin diola.

Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen.

Bigarren.- Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatzea Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen taldeari dagokion hautagaiari zinegotzi kargua eman diezaiola.

Segundo.- Solicitar a la Junta Electoral Central que designe al candidato de Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen que corresponda para que desempeñe el cargo de concejal.

Hirugarren.- Hauteskunde Batzorde Zentralari erabaki honen berri ematea.

Tercero.- Comunicar este acuerdo a la Junta Electoral Central.

9.- Aprobación del acta de deslinde entre Ibarra, Leaburu-Txarama y Tolosa.

9.-Ibarra, Leaburu-Txarama eta Tolosa udalerrien mugaketa akta onartzea.

2012ko urtarrilaren hogeita hamaikan Tolosako Udalbatzak honako espedienteari hasiera eman zion.

“Ibarra, Leaburu-Txarama eta Tolosa udalerrien arte muga zekazketa espedientea”.

Horretarako, martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako udal mugarteak arautzen dituenen arabera, 18 eta 19. artikulua aurreikusitako Udal Batzordeko ordezkariak izendatu zituen Udalbatzak.

2012ko maiatzaren 8ko 492/2012 Foru Agindu bidez, ebatzi zen Ibarra, Leaburu eta Tolosako udalerrien arteko mugaketarako egin beharreko prestaketa lanei hasiera ematea.

2014ko azaroaren 25eko ebazpenaren bidez, Foru Aldundiko Araubide Juridikoko zuzendari nagusiak udalerrien arteko mugaketa gauzatzeko eguna eta ordua zehaztu zuen: 2014ko abenduaren 12an.

Aipatutako egun horretan mugaketa lanak egin eta Mugaketaren Aktan jaso ziren. Tolosako mugari dagokionez, Aktaren II. eraskinean jasotzen dira.

2/2003 Foru Arauaren 22. artikulua arabera, mugaketaren akta, agiri osagarri guztiak berarekin dituela, Udalaren batzarrera eramango da hilabeteko epean, batzarrak onar dezan.

Gauzak horrela, Hirigintza, Obra eta Auzoetako Batzordeak jaulkitako aldeko diktamena ikusirik, Udalbatzak, aho batez, gehiengo absolutua duelarik,

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

ERABAKI DU:

Lehen.- 2014ko abenduaren 12an Ibarra, Leaburu-Txarama eta Tolosa udalerrien mugaketa akta onartzea, eranskin eta gainontzeko osagarri guztiekin. Aktaren II. eranskinak, Tolosako Udalarri dagokionak, honela dio:

“Apataerreka Industrialdean elkartu dira 2014ko abenduaren 12an, goizeko 9:00 tan Tolosa, Ibarra eta Leaburuko udalen batzordeak; eta jarraian deskribatzen den mugarria hiru udalerrien artean dutela berretsi dute:

“El día 12 de diciembre de 2014, a las 9:00 horas, se reúnen en Apataerreka Industrialdea las comisiones municipales de Tolosa, Ibarra y Leaburu, que reconocen como común punto de delimitación de los tres municipios el mojón que a continuación se describe:

1. mugarria

Altzairu herdoilgaitzeko plaka zirkular bat da, 15 zentimetroko diametroa duena. M1 identifikatzailea grabatua dauka; baita Ibarren I letra, Tolosaren T letra eta Leabururen L letra ere: hau da, letra bakoitza mugarriak eragindako dagokion udalerrirantz begira eta T formako trazuz grabatu baten bidez bereizita. T horrek hiru norabide markatzen ditu, puntu horretan batzen diren hiru muga-lerroena.

Apataerreka Industrialdean dago: H5 lursailaren hegoaldeko izkinatik hogeit hamar metro; itxura hormaren gainean eta lurretik berrogei zentimetroa.

ETRS89 sistemako UTM koordinatu hauek dituen puntuan kokatzen da:

X = 575993.028 eta Y = 4774794.02.

Mojón nº 1

Se reconoce como tal, una placa circular de acero inoxidable de quince centímetros de diámetro, que tiene grabado el identificador M1 así como las letras I de Ibarra, T de Tolosa y L de Leaburu, iniciales de los municipios a los que es común y orientadas hacia cada uno de ellos, separadas por un trazo grabado con forma de T que indica la dirección de las tres líneas de término que convergen en este punto.

Se encuentra situada en Apataerreka Industrialdea, a veinte metros de la esquina sur de la parcela H5 sobre el muro de cierre de la misma y a cuarenta centímetros del suelo.

Se localiza en el punto del terreno cuyas coordenadas UTM en el sistema ETRS89 son:

X = 575993.028 e Y = 4774794.02.

Este mojón es común a los términos

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

Mugarri hau Ibarra, Tolosa eta Leaburu municipales de Ibarra, Tolosa y Leaburu." udalerriei dagokie."

Bigarren.- Mugaketaren aktaren onarpena Gipuzkoako Foru Aldundiari, Ibarri eta Leaburu-Txaramari jakinaraztea.

10.- Tolosako Udalerrian kaleko salmenta arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

10.-Modificación de la Ordenanza reguladora de la venta ambulante.

Hauek dira II. Eranskinko Zerkausi, Atadi eta Berdura Plazako merkatuen ordenantzaren aldaketak:

- **2. artikulua:** Zerkausian postua edukitzeko baimena urtero berritu beharko da, fitxa bat beteaz.
- **3. artikulua:** bertako produktuen definizioa. 7. artikuluan definitua.
- **4. artikulua:** aldizkakotasuna. Atadi kaleko saltzaileek hilabetean bi asteburuetan etorriko dira dagokien urtaroen.
- **5. artikulua:** ordutegiak: Karga eguerdian bi txandatan antolatuta egongo da. Postuaren adjudikazioa egitean txanda eskaera egin beharko da. Lehenengoa 12:45tan eta bigarrena 13:15tan. Karga momentuan udaltzaingo baten laguntza izango da Solana kalean segurtasuna ziurtatzeko. Eskatutako ordutegia errespetatu beharko da. Baimena berritzerakoan betetzen den fitxan jarriko da jasotzeko ordua.
- **6. Artikulua:** adjudikazio eskaera egitean, zer produktu eta zer urte sasoirako nahi den azokako postua adierazi beharko dira idatziz.
- **7. Artikulua:** postua esleitzeko irizpideak finkatu dira. Ekoizleei lehentasuna emanaz.
- **8. Artikulua:** esleipenaren indarraldia urtebetekoa izango da. Berritzeko, urte amaieran baimena berritu beharko da.
- **9. artikulua:** bi epealdi otsaila- martxoa eta urria-azaroa definitzen dira postua jartzeko baimena eskatzeko.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

- **10. artikulua:** postua esleitzean, eskatzaileak ordenantzaren kopia bat sinatuko du, araudia onartuaz, eskubideak/betebeharrak zein diren argi izanik.
- **13. artikulua:** derrigorrezkoa izango da Udalak banatutako kartel identifikatiboak azokan erakusgai jartzea. Postu berrien kokapena batzordean erabakiko da, hau loteslea izanik.
- **14.1 artikulua:** derrigorrezkoa da mahaia erabiltzea.
- **14.8 artikulua:** postu berrien kokapena. Udalak erabakiko du postu berrien kokapena, beti ere Batzordearekin kontsultatuta eta bertan hartutako erabakia loteslea izanik.
- **15.8 Artikulua:** hondakinen gaikako bilketa egingo da.
- **16.1 artikulua.** elkarteko kide izatea. Postua esleitzearekin batera Tolosako Azokako Elkarteko kide bihurtuko da. Batzordea eratzearen arrazoia da Zerkausiko eta Berdura plazako saltzaile eta udalaren artean interlokuzio bat egotearena.
- **16.2 artikulua.** parte hartze aktiboa. Batzorde deialdietan parte hartzea bultzatuko da.
- **16.3 artikulua:** produktuen jatorriaren informazioa jarri beharko da.
- **16.4 :** produktu bakoitzaren prezioa adieraziko da
- **18. artikulua.** Kuotak, kudeaketa on bat izateko, ezinbestekoa da kuota sinboliko bat jartzea. Zenbatekoa lehen hiruhilabetekoan definituko da, Apirilaren 1etik aurrera martxan egoteko.

Hortaz, Tokiko Araubidearen Oinarriak Por todo ello, de conformidad con los artículos arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 d) y el 49 de la Ley 7/85, de 2 de abril, 22.2 d) eta 49. artikuluetan xedatutakoaren reguladora de las Bases del Régimen Local, arabera, eta espedientea aztertu ondoren, examinado el expediente y a la vista del Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, dictamen de la Comisión de Medio Ambiente, Merkataritza eta Turismoa batzordearen Desarrollo Económico, Mercados y Turismo, el dikmenarekin bat etorritik, Udalbatzak, aho Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, batez,

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

ERABAKI DU:

Lehena.-Hasierako onespena ematea, goian aipatutakoaren arabera, Tolosako Udalerrian kaleko salmenta arautzen duen Ordenantzaren aldaketari.

Bigarrena.-Espedientea 30 egunez jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ediktu taulan argitaratuz, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena.-Aipatutako aldaketak behin-betiko onartutzat jotzea, aurreko puntuan adierazitako epean ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten.

ACUERDA:

Primero.-Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza reguladora de la venta ambulante en los términos señalados en la parte expositiva de este acuerdo.

Segundo.-Someter el expediente a información pública, insertando el oportuno anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en Tablón de Edictos del Ayuntamiento, por el plazo de treinta días para presentación de reclamaciones y sugerencias.

Tercero.-Si no se presentara alegación alguna dentro del plazo establecido, considerar aprobadas definitivamente las modificaciones de la citada Ordenanza.

Parte hartzeak:

- ...Alkatea: “*Helburua zen araudia gorpuztea eta nekazari elkarte eta nekazari txikiak beraien artean elkartzea eta modernizatzea eta Gipuzkoako beste azoka nagusikoekin bateratzea antolaketa eta funtzionamendua.*”
- ... Nerea Letamendia Belloso, EAJ/PNV: “*Zerkausiaren berritzearekin batea belaunaldi aldaketa garrantzitsua dago. Jende berria. Ordenantza hauek egokitu behar ziren gaur egun gazteei begira, Zerkausiko merkatua eta bertako produktuak sostenigarri izan daitezen. Egokitzapen pixka bat beharrezkoa da. Azpimarratu behar da 5. artikulua: karga jasotzen den ordutegiari dagokiona. Solana kalean, egurdian, arazoak daude; jende asko eta umeak biltzen dira, eta oreka bat lortu beharra dago, herritarrekin eta Zerkausiko azokarekin.*”
- .. Jokin Azkue Arrastoa: “*Badago ziurtagiri bat Ordenantzei buruz, %15eko jeitsiera onartu zena Azokan, non agertzen den guk kontra bozkatu genuela. Guk garbi esan behar dugu Ordenantza aldaketa guztiari eman geniola kontrako botoa, baina %15aren jeitsiarekin ados geundela.*”

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

11.- Galde-eskeak.

11.- Ruegos y preguntas.

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNko zinegotziak, Miren Urkola Irigoyeni, Bilduko zinegotziari, EAJ/PNVren partetik zorte hobereana opa dio eta laguntasuna eskertzen dio.

... Alkatea: "*Espero dut zuek lehenbailehen zuzenean eskerrak emateko aukera izatea*".

Bestalde, Alkateak urte amaiera ona opa die etorritako guztiei eta eskerrak eman ere, gonbidatuz urtarrilaren 10ean giza eskubidearen aldeko martxara joateko, eta, baita ere, parte hartzeko horretarako jarraian aterako den argazkian.

Besterik gabe, gaueko bederatzitan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las nueve de la noche, se da por finalizada la Sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

1. ERANSKINA

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.12.30

2. ERANSKINA